

ZER DA "EUTSI"?

1961 eta 1962-ko urtean, oso zalapartatsuak izan dira abertzale-tasunaren aldetik. 1951-etik 1960-ra abertzale-tasunaren garra zenbaiten ustez itzaltzen agertua ba zan ere, bapatean piztu egin da; eta politziak berak daki ondoenik datorkeana... Esan bearrik ez, irakurleak bai-baitaki: ETA'k pizkunde jator ortan duen partea, ez da txikia izan.

Pizkunde au ikusita euskaldun guztiak ez dira poztu. Aitzitik, illundo eta bildurtu ere egin dira batzuk. Badirudi, oiei entzunda, berakin bukatzen dala Euzkadi' ren istoria. Alere, bearrik, abertzale-tasuna ez da 1936 ean gelditu.

Geienak, egia esan, gozki daude. "Bazetoztek gure ondoren ere Aberria biotzean daramakiten gazteak. Orrela, sua gerde egingo duk", diote.

Esaera onen asmo eta alde onak ukatzea, astakeria litzake. Are geiago: borondate on utsa da.

Baiña, aberkide maiteok: noiz arte poztuko gera, besterik gabe, abertzale-tasunaren garra itzali ez dalako? Naikoa dala esan liteke. Alere, suari eustea, nai-ta-naiez-koa izanik ere, EZ DA ASKI. Euzkadi' ren "sua" gordetzea ez da aski. Euskal-Erria salbatu egin bear da.

Ondo da, pozgarria da, leenengo pausua da, abertzale-tasunaren garra itzaltzen ez uztea. Ori gabe, kitto. Noski!

Belaun bati besteak jarraitzea ondo da, oso ondo. Orrela ez danean etorkizunik ez; eta oroitza-penetara pasatzen da. Bai. Milla aldiz bai.

Ori guztia egia da. Eta ondo da.

Baiña gure elburua *Euskadi azkatuta eta euskalduna da*; ez, mendez-mende "suari eustea" bakarrik. Azkatasunaren egunaz pentsatzen asi bear dugu; garaipenaren orduari begiratu bear diogu. Ezin onela segi, atzeraka, eta galtzeari eta sufrizzeari eten gabe eldurik. BEREALA IRABAZI BEAR DUGU.

Iru gerra galdu ditugu, 1839, 1876 eta 1939-ko urteetan. Milla euskaldun il dira, bein eta berriz, ontara edo artara Euskal-Erria benetan salbatu nairik. Amaika euskaldunek bete dituzte España'ko gartzelak. Anitz Euskaldun atera dira Atzerrira, España'ko gobernu batek edo besterik urrun-arazirik. Eta, noiz arte galduko?

Ondo da. Ekin egin diogu; gaurko gazteak ere ekiten diote. Oñazearen bidcan barrean abiatu gera



ZER DA "EUTSI" ?

1.961 eta 1.962-ko urtean, oso zalapartatsuak izan dira abertzale-tasunaren aldetik. 1.951-etik 1.960-ra abertzale-tasunaren garra zenbaiten ustez itzaltzen agertua ba zan ere, bapatean piztu egin da; eta politziak berak daki ondoenik datorkeana... Esan bearrik ez, irakurleak bai-baitaki: E.T.A.' k pizkunde jator ortan duen partea, ez da txikia izan.

Pizkunde au ikusita euskaldun guztiak ez dira poztu. Aitzitik, illunda eta bildurtu ere egin dira batzuk. Badirudi, oiei entzunda, berakin bukatzen dala Euzkadi' ren istoria. Alere, bearrik, abertzale-tasuna ez da 1.936 ean gelditu.

Geienak, egia esan, gozki daude. "Bazetoztek gure ondoren ere Aberria biotzean daramakiten gazteak. Orrela, sua gerde egingo duk", diote.

Esaera onen asmo eta alde onak ukatzea, astakeria litzake. Are geiago: borondate on utsa da.

Baiña, aberkide maiteok: noiz arte poztuko gera, besterik gabe, abertzale-tasunaren garra itzali ez dalako? Naikoa dala esan liteke. Alere, suari eustea, nai-ta-naiez-koa izanik ere, EZ DA ASKI. Euzkadi' ren "sua" gordetzea ez da aski. Euskal-Erria salbatu egin bear da.

Ondo da, pozgarria da, leenengo pausua da, abertzale-tasunaren garra itzaltzen ez uztea. Ori gabe, kitto. Noski !.

Belaun bati besteak jarraitzea ondo da, oso ondo. Orrela ez danean etorkizunik ez; eta oroitza-penetara pasatzen da. Bai. Milla aldiz bai.

Ori guztia egia da. Eta ondo da.

Baiña gure elburua *Euskadi azkatuta eta euskalduna da*; ez, mendez-mende "suari eustea" bakarrik. Azkatasunaren egunaz pentsatzen asi bear dugu; garaipenaren orduari begiratu bear diogu. Ezin onela segi, atzeraka, eta galtzeari eta sufrizzeari eten gabe eldurik. BEREALA IRABAZI BEAR DUGU.

Iru gerra galdu ditugu, 1.839, 1.876 eta 1.939-ko urteetan. Milla euskaldun il dira, bein eta berriz, ontara edo artara Euskal-Erria benetan salbatu nairik. Amaika euskaldunek bete dituzte España'ko gartzelak. Anitz euskaldun atera dira Atzerrira, España'ko gobernu batek edo besterik urrun-arazirik. Eta, noiz arte galduko?.

Ondo da. Ekin egin diogu; gaurko gazteak ere ekiten diote. Oñazearen bidcan barrean abiatu gera euskaldunok eun urte ontan, Aberriari so-egirik. Pozgarria da. Benetan pozgarria.

Baiña orain arte geuk euskaldunok artu ba ditugu negarren bideak, noizpait utzi bearko ditugu erdaldunentzat. Orain arte galdu ba dugu, noizpait bearko dugu irabazi.

Erne, ordea: Euzkadi jaio baiño leenago Euskal-Erria ilko ba litz... BERANDU!! "Suari eustea" ez da aski. Garaiz iritxi bear.

Tenk egin bear dugu; nekean katea, jasanaldiaren segida, eten egin bear ditugu.

Eta, Euskal-Erriaren gainbera gorria ikusita, ezin luza. Geure belaun onetxek garaitu bear du. Geuk ikusiko dugu-ta, Euz- (Jarraitzen du) .../...

Noiz arte zai ?

Noiz arte ?

Noiz ?

euskaldunok eun urte ontan, Aberriari so-egirik. Pozgarria da. Benetan pozgarria.

Baiña orain arte geuk euskaldunok artu ba ditugu negarren bideak, noizpait utzi bearko ditugu erdaldunentzat. Orain arte galdu ba dugu, noizpait bearko dugu irabazi.

Erne, ordea: Euzkadi jaio baiño leenago Euskal-Erria ilko ba litz... BERANDU!! "Suari eustea" ez da aski. Garaiz iritxi bear.

Tenke egin bear dugu; nekean

katea, jasanaldiaren segida, eten egin bear ditugu.

Eta, Euskal-Erriaren gainbera gorria ikusita, ezin luza. Geure belaun onetxek garaitu bear du. Geuk ikusiko dugu-ta, Euzkadi jaiotzen; ala Euskal-Erria litz.

Erriak suntxitu egiten dira, aztarrenik txikienak ere ezabatu arte. Belaunetik belaunera itxaropenaren sua trukateak galdu du sentidua gure artean.

Txillardegí

Noiz arte zai?

Noiz arte?

Noiz?